

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4450

*1179/2020 EBAZPENA, urriaren 7koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Carolina Ocio Aracama andrea, Digestio Aparatuko Zerbitzuko gainbegirale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza 4. B) izendatu duten izendapen askez, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

958/2020 Ebazpenaren, abuztuaren 12koa, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan Digestio Aparatuko Zerbitzuko gainbegirale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza 4. B) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Carolina Ocio Aracama andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Aparatu Digestiboko Zerbitzuko Gainbegiralea (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza 4. B).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Carolina Ocio Aracama andrea izendatzea Digestio Aparatuko Zerbitzuko gainbegirale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza 4. B) Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko urriaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 7a.

Arabako ESiko zuzendari gerentea,  
JESÚS LARRAÑAGA GARITANO.